

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2022ko azaroa

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerek eta ostatu-gauak, 2022ko azaroan, % 16,2 eta % 16,7 egin dute gora

Euskal AEn, gelako okupazio-maila % 56,8koa izan da, 2021eko azaroan baino ehuneko 3,8 puntu handiagoa

2022ko azaroan, Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerek % 16,2 egin dute gora, eta ostatu-gauak, % 16,7, urte arteko terminoetan, Eustaten datuen arabera. Sarrerek, guztira, 247.036 izan dira, eta ostatu-gauak, 457.573.

2022ko azaroan, sarrera guztien % 32,6 eta ostatu-gauen % 33,7 atzerriko jatorrikoak izan dira; ehuneko horiek 2021eko azaroan izandakoak baino pixka bat handiagoak izan dira, orduan, atzerriarren sarrerek eta ostatu-gauak % 31,8 eta % 32,3 izan baitziren, hurrenez hurren. Estatuko jatorriko sarrera eta ostatu-gauen kopuruak gora egin du, urte artean, % 15 eta % 14,3, hurrenez hurren.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerek, gualdiak eta batez besteko egonaldia. Azaroa 2022

	Sarrerek		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2022/11	m/m-12 (%)	2022/11	m/m-12 (%)	2022/11	2021/11
EUSKAL AE	247.036	16,2	457.573	16,7	1,85	1,85
Estatukoak	166.604	15,0	303.466	14,3	1,82	1,83
Atzeritarrak	80.432	18,9	154.107	21,6	1,92	1,87
Araba/Álava	35.688	19,8	67.029	12,7	1,88	2,00
Estatukoak	28.416	22,1	52.947	15,2	1,86	1,97
Atzeritarrak	7.272	11,8	14.082	4,2	1,94	2,08
Vitoria-Gasteiz	28.050	27,5	54.360	14,3	1,94	2,16
Bizkaia	112.924	17,4	208.796	19,6	1,85	1,82
Estatukoak	78.721	16,2	141.003	18,3	1,79	1,76
Atzeritarrak	34.203	20,5	67.793	22,4	1,98	1,95
Bilbao	77.909	15,4	140.729	15,1	1,81	1,81
Gipuzkoa	98.424	13,7	181.748	14,9	1,85	1,83
Estatukoak	59.467	10,5	109.516	9,2	1,84	1,86
Atzeritarrak	38.957	18,8	72.232	24,9	1,85	1,76
Donostia / San Sebastian	64.452	10,7	116.990	11,3	1,82	1,81

M/m12 Behatutako azken hila batean izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hila bate berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Abenduaren 20a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileen Inkesta

Arabari, 35.688 sarrera eta 67.029 ostatu-gau erregistratu dira; alegia, aurreko urteko azaroan baino % 19,8 eta % 12,7 gehiago, hurrenez hurren. Bizkaian, hazkuntza % 17,4koa izan da sarreretan eta % 19,6koa, ostatu-gauetan; guztira, 112.924 sarrera eta 208.796 ostatu-gau izan dira. Gipuzkoan, 2022ko azaroan, 98.424 sarrera izan dira, 2021eko azaroan baino % 13,7 gehiago, eta 181.748 ostatu-gau, duela urtebete baino % 14,9 gehiago.

Hiriburuka, sarrera kopuruak % 27,5 egin du gora Vitoria-Gasteizen, % 15,4 Bilbon eta % 10,7 Donostian. Antzera, ostatu-gauen igoera, aurreko urteko azaroarekin alderatuta, % 15,1koa izan da Bilbon, % 14,3koa Vitoria-Gasteizen eta % 11,3koa Donostian.

2022ko azaroko batez besteko egonaldia 1,85 egunekoa izan da Euskal AE osoan, 2021eko hil berekoaren antzekoa.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Azaroa 2022

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2022/11	p.p. *	2022/11	p.p. *	2022/11	m/m-12 (%)	2022/11	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	45,2	3,4	56,8	3,8	80,18	5,4	45,53	12,9
Araba/Álava	45,2	0,6	59,8	-1,2	74,90	0,9	44,82	-1,1
Vitoria-Gasteiz	47,0	-0,1	64,7	-1,6	64,43	-0,7	41,71	-3,2
Bizkaia	44,7	4,7	57,4	6,4	82,02	10,8	47,11	24,7
Bilbao	47,6	3,9	60,5	6,6	89,49	13,0	54,18	26,9
Gipuzkoa	45,7	2,8	55,0	2,3	79,95	1,0	43,94	5,4
Donostia / San Sebastian	49,7	1,2	57,0	-0,2	90,88	0,2	51,79	-0,1

p.p.*= aurreko urteko hila bate berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hila batean izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hila bate berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Abenduaren 20a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

2022ko azaroko okupazio-maila, Euskal AEn, oro har, plazen arabera neurtuz gero, % 45,2koa izan da, eta % 56,8koa, gelen arabera neurtuz gero. 2021eko azaroarekin alderatuta, ehuneko 3,4 eta 3,8 puntu areagotu dira, hurrenez hurren.

Errentagarritasuna, ADR edo eguneko batez besteko tarifaren bidez neurtua, Euskal AE osoan, 80,18 eurokoa izan da 2022ko azaroan; alegia, % 5,4 areagotu da, aurreko urteko azaroaren aldean. Gipuzkoaren kasuan, 79,95 eurokoa izan da ADRa; Bizkaian, 82,02 eurokoa, eta, Araban, 74,90 eurokoa. Hiriburuka, aldeak handiagoak dira; izan ere, ADRa 90,88 euro izan da Donostian, 89,49 euro Bilbon eta 64,43 euro Vitoria-Gasteizen.

RevPar edo hileko gela eskuragarriko diru-sarrerak, Euskal AE mailan, 45,53 euro izan dira 2022ko azaroan, aurreko urteko hil berean baino % 12,9 handiago.

Informazio-oharra

Hotelen ETHIren estaldura % **90,4koa** izan da azaroan. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Euskal AEko turismoko datuen esploratzailea. Hotel-establezimenduak

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62